

Iratxeko Monasterioa

El monasterio de Iratxe figura entre los grandes monasterios de la historia navarra. Situado en el término municipal de Aiegi, lo encontramos a un par de kilómetros de Estella/Lizarra, camino de Logroño. La noticia de su primer abad conocido es muy temprana (958); aproximadamente un siglo después (1060) recibió la Regla de San Benito y vivió una Edad Media brillante. Su señorío monástico perduró hasta el siglo XIX.

Lizarra ondoan, Aiegiko herrixkan dago monasterio hau, Andre Mariaren izenpekoa da zisterarren artean ohikoa zen bezala. Beneditarrek Nafarroan indar betea hartu aurretik ageri zaigu Iratxe monasterio egina bezala (X. mendean), bere lehenengo abadearekin (Theudano, 958).

Jaurerri iraunkorra (XI-XIX. mendeak)

Monje-elkartearen iragan erlijiosoarekin txirikordaturik monasterio honek bere aurpegi ekonomiko, politiko eta kulturala erakusten dizkigu mendeak zeharreko ibilera historikoan.

Euskal Herriko monasterio handi guztiek bezala, elkarren ondoan eta elkarrekin eginez joan diren bi historia ditu Iratxek ere. Bata, etxe barrukoa, monasterioko monje eta bizilagun guztiena, eguneroko otoitz eta lanera emana, eta bestea, monasterioko bizitzari euskarriak eta segurtasun sozio-ekonomikoa emateko sortu zen ondarearena.

Eta biek ere, kasik bederatzehun lurte luzatu zirenez (958-1839), garai ezberdinak izan zituzten, hau da, batzuetan sendo eta bestetan ahulago. Erdi Aroan (958-1537) jaso ziren monasterioko eraikinak ez ezik bertako lagunarte behin eta ostera berritua, lortu zen ondasunen metatzea eta berorren modu bateko nahiz besteko kudeaketa. Krisi-aldi bat ere ez zen falta izan Izurrite Beltzaren ondoren (1348...) eta XV.

mendeko gerrateen hamarkadetan. Hala ere, asmatu zuten monjeek beren ekonomia garaiko gorabeheretan ahalik ongien eramaten.

Monasterioko barne-bizitzan, Abadeen hauteskunde-prozedurek izan zuten gorabeherarik aski. Jatorriz, monakatuaren izaeran zegoen Abadea aukeratzeko monjeen eskumena; baina, XIV. mende-azkenetik hasita, Aita Santuek kontrolatu nahi izan zuten hori. Okerrena dena, prozedura horren bidez, XV. aren hondarretik aurrera Abade gomendatariak ezarri zituzten Iratxen (monje izan beharrik ere ez zuten Abade administrariak, esan nahi dut, ondasunen kudeatzaile hutsak izanik, sarritan bertan bizi ere bizi ez zirenak).

Bestalde, XVI. mendean, Nafarroako Erresumak jasan zituen aldakuntzen ondoren, etxe barruko erreformei heldu behar izan zien Iratxek, gainerako zisterarren artean bezala; beste monasterio nafarren erreforma-arrasto berean sartu behar izan zuen honek ere. Une hartan (1522-1535), erreformak ez zion heldu nahi izan erlijiosoen barne-biziberritzeari edo biziera hertsia goa ezartzeari bakarrik, baizik eta asmo politikoagoetara iritsi nahi zuen Koroa gaztelauak.

Zister osoaren gobernu- eta antolamendusare osoa birmoldatu nahi zen, ahal zelarik Nafarroako erlijioso eta monasterioak Koroa gaztelauaren erreformaren ildora bideratuta.



Nafarroako beste zistertarren artean bezalatsu (baina azken ondorio ezberdinarekin), Valladolid-eko Kongregazio zistertarrean sartzeko eskatu zitzaion Iratxeri (1522).

Iratxeko monjeak, hiru ezik, proposamenaren kontra agertu ziren; hala ere, eztabaida luzeen ondoren, aldeko hirurok hartu zuten monasterioa beren eskuetan; gainerakoak Iratxe utzi eta Deikaztelun jarri ziren bizitzen, eta han iraun zuten hil ziren arte. Valladolid-eko Kongregazioan ofizialki 1535ean sartu zen Iratxeko monasterioa,

Jaurerri zabalean, Unibertsitatea

Monasterio handi guztiek bezala, Iratxekoak ere bere jaurerria eratu zuen, han-hemen zituen ondasunekin ondare aberatsa bilduta. Nafarroako Merindadeetan izan zuen bereziki ondasunik, Lizarra eta Iruñekoan gehienbat (950-1550). Nafarroatik kanpo, Errioxa, Araba eta Aragoian ere bai. Guztietan zuena begiratu eta kudeatzea izan zen monasterio-administrariaren zeregina.

950-1550. urte haietan, hurbil edo urrun zeuden ondasun eta ardura ezberdinak besarkatzen zituen Jaurerriak: monasterio txikiagoak (28), elizak (12) eta herriak (19) ziren batzuetan, elizgune galduak, edo etxeak (36) nahiz errota (6), lur-sail (110, 187), mahasti (78), baratza (14), zelai (4) edo mendiak (1), denek ere nekazari, artzain eta langileak behar zituzten ondasunak. Azkenik, ondasunekin batera gutxienez 104 langile-maizter (*collazo*) eman zizkioten monasterioari ongileek, urte haietan.

Horrek guztiak herritarrekiko harremanak zekartzan, sistema ekonomiko eta juridiko baten

barruan gauzatzen zirenak, eta guztiaren kudeaketarako kargudun eta ofiziokoak: prioreak, priorordeak, sakristauek, ostalariak, erizainak, limosnariak eta abar.

Iratxek Lizarrako burguan (1090) ere izan zuen monasterioetan hain ohikoa ez zen lekua, eta Antso Jakitunak San Joan Bataiatzailearen eliza eraikitzeko eskatu zion (1187), beronen jabe izan zen XIX. mendea arte; bestalde, hirian dohaintza pribatu ugari jaso zuen monasterioak.

Iratxeko jarduera nagusiak otoi-tza, esku-lana eta hein batean pastoralak izan ziren; baina ezin da gogorazi gabe utzi, bestelako ekinbide sonatu bat. Iratxeko monasterioak bere Unibertsitatea sortu zuen, ongi kostata baina azkenik bedeinkazio guztiekin. Ez zuen lortu, nahi izan zen tamaina, baina bi mende eta erdi pasatxo irekita egon zen (1569-1824). Teologia eta Legeak ez ezik Medikuntza ere irakatsi zen bertan, XVII. mendetik 1753a arte.

Iratxeko izen historikoen artean eman behar dira San Beremundo Abadea (XI. mendea), eta bertako Unibertsitatean ikasketak egindakoak: kardinalak (3), artzapezpikuak (25) eta gotzainak (50en bat).

Iratxeri bere ordu txarrak XIX. mendean heldu zitzaizkion, data ezberdinetako gobernuentseguen ondoren (1809, 1820), 1839an Gobernuak monjeak sakabanatu eta ondasunak "ondasun nazionaltzat" hartu eta enkantera ateratzean. Horrela bukatu zen ia 900 urte betetako monasterio hau. Geroztik eskolapioak egon ziren bertan (1885-1984)

Joseba Intxausti